

IRUDIPENAREN BILA

Egia esan Saint-Exupéry lehen aldiz irakurri nuenean, halako bihoz-kada berezi batek harrapatu ninduen. Izan ere bizi behar dugun giro neurotiko eta deserrotu hontan, abentura eta ibilaldi ezti haiek «hegan» jartzen gintuzten —eta gaituzte—. Idazleak bere gai hartatik haize fresko eta gozagarri dakarkigu gure egunean eguneko bizitza monotoari, kontra egiteko.

Eskutartean daukat haren «Terre des hommes» idazlana. Ez du nere-tzat galbiderik.

Ez dakit naturazalea piloto egin den, han goian ikusmiran gure bizitza-husgune eta ezerezak salatzeke, ala abenturazale bat den arriskuan eta larrialditan pentsabide ugari aurkitu duena. Nolanahi ere idazle horien edozein lani interesgarri deritzat.

«Terre des hommes» delakoan aurkitu dudan zenbait nabardura azaltzen saiatuko natzaizue. Ez dira agian inportanteenak, baina bai neroni gehienbat ukitu nautenak. Has gaitezen ba da:

Burgesen salakuntza:

«Bizitza burgesak ematen dikan trankilidade, ohitura eta rito itogarrietan murgildurik, hik ez diok hire buruari erantzun gabeko galderarik lurutzen. Orain ire kampoko esatura ihartu eta gogortu egin zaik. Ez huke hire baitan bizi zatekeen musikalaria edo poeta edo astronomoa izartzen jakingo».

Adiskidetasuna nekez ahaztutzen da:


«Ez dago ezer elkarrekin biziriko oroitpenik konpara daitekeenik. Hainbat ordu larri, horrenbeste bihozkada. Horrelako adiskidetasunik ezin da berbizi, berpiztu. Zuhaitz bat landa eta berehala haren itzalaren zain egotea bezala litzateke».

Heroismoaren gozalpena: bere bizitzaren konstante bat du: Bere pertsonaien ibilaldi harrigarriak, gertaera arruntaiz, normalak egiten ditu. Heroismoa den baiengan nabaritzen den «bertuterik» handiena. Supergizonaren bila ote zebilen; Hor dagoke agian idazlearen utsegiterik eztabaidagarriena. Irakur horretarako bere lagun Guilloumet pilotoari eskaini hitzak. Guillaumet ekaitz batek harrapatu Andes-tan lurrera ukan zuen. Gero aste betez galduta ibili zen, azken baten erdi-hilik aurkitu zuten.

Jo dezagun baina aurrera.

Nor detza gizonaren elburua?

Hara zer dioen Saint-Exupéry: «...gizonak bere egia eskuratu behar du. Hori duke beretzat oinarrizko gauza (l'essentiel). Baina ez beza egia hori bere bokazioarekin konfunditu».



Gizonon elburuak berdinak omen dira, Baina...

«Gure elburuen bila, metodo ezberdinak darabiltzagu hortik datoz konpondu ezinak».

Gero dio:

«Egia mota asko dago: Barcelonako anarkista batek bere egia berezia defenditzen du. Berdin Espainiako monastegietan atalzain dagoen soldadua. Hau ere bere elizagatik hil da»...

Funtsean hauxe duzu egia:

«La verité por l'omme, c'est ce qui fait de lui un homme».

Ideologiaz ez omen ditugu eztabaidatu behar.

«Denak —ideolojiak— progagarriak badira, denez baita elkarren kontrako zerbait dute».

Azken batean frantziarren lana humanismo gardenaren barnean gordezten edo finkatzen da.

Norbaitek Saint-Exupéry-ren lanei indibidualismo kutsu gehiegizkoa salatu dio. Halare nik ez nuke esango haren indibidualismoa burgesiaren hesparruan —burgesiak indibidualismoari buruzko kontzeptuan— finkatu behar dugunik.

Burgesiak berak dituen baloreak (?) aurrera ateratzeko edonorren gainetik pasatzeko prest da. Nik ez uste ordea, hori Saint-Exupéry-ren kasoa denik.

ANTTON NARBAIZA

OHARRA. Oraindik, tamalez, euskaraz obra bat besterik ez dugu, eta bera Salvador Garmendia euskaratuzuen: «PRINTZE TXIKIA» (Ikastolako Liburutegia, Iñaki Beobide, Donostia, banatzaile bakarra).

RESUMEN DEL ARTICULO

IRUDIPENAREN BILA, «En busca de la imaginación», nos lleva al mundo de Antoine de Saint-Exupéry, cuya vida y cuyas obras están llenas de azares y aventuras. Está dedicado a los que tuvimos la suerte de que nos llegase algún libro suyo cuando todavía teníamos libre la imaginación para dejarla volar por un mundo más allá de las alienaciones de la sociedad en la que estamos metidos. Recordemos entre otros libros suyos traducidos al castellano: «El pequeño príncipe», «Tierra de hombres», «Vuelo nocturno»... De origen acomodado, rompió con el ambiente de la burguesía, se hizo piloto y se dedicó a volar por los cuatro continentes, dejándonos escritas páginas vibrantes de sus ricas vivencias. En el artículo se destacan algunos de los matices constantes en sus libros: heroísmo, solidaridad, sacrificio, imaginación, sensibilidad.